

GOBERNU BATZARRA

2017 10 02

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren bian, 08:00etan, Gobernuko Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko:

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzaitza:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

- 1.- Aurreko akta onartzea.
- 2.-Tolosako "12.4 San Frantzisko Pasealekua, 32,34,36" azpiesparruko gauzatze-Unitateko hitzarmen batzarreko kide berriak eta hitzarmen batzarra Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza-Intereseko elkartean erregistroan inskribatzea.
- 3.-Tak-eri dirulaguntza izenduna.
- 4.- Tolosako Elosegi Parkeko egokitzapen proiektuaren laugarren faseko obrak kontratatzeeko klausula administratibo partikularren baldintza agiria onartzea.
- 5.-Iurramendiko baratza parkearen lursailak esleitzeko deialdia onartzea.
- 6.-"Bidebieta Auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"n jasotako obraren 5. ziurtagiria (V-17/0698 eta V-17/0699 faktura).
- 7.-51-52/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko irailaren 25ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako “12.4 San Frantzisko Pasealekua, 32,34,36” azpiesparruko gauzatze-Unitateko hitzarmen batzarreko kide berriak eta hitzarmen batzarra Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza-Intereseko elkartearen erregistroan inskribatzea.

Bi mila hamazazpiko irailaren 13ko dataz Jose Angel Chapartegui Izaguirrek “12.4 San Frantzisko Pasealekua, 32,34, 36” azpiesparruko gauzatze-unitateko hitzarmen batzarrari batu zaizkien bizilagun berrien berri eman eta, behin legeak ezarritako izapide guztiak burutu ondoren, hitzarmen-batzarra Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza-Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatu dadila eskatu du.

Eskaerarekin batera eskaera justifikatzen duten hainbat dokumentazioa erantsi ditu. Horien artean Hitzarmen Batzarraren eraketaren eskritura publikoa, 2017ko apirilaren 10ean sinatutakoa, eta hitzarmen batzarrari atxiki zaien jabeen atxikipen eskriturak. Dokumentazioa aztertu ondoren, ekainaren 30eko 2/2006 Legeak ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatu ahal da eta ondorioz, 1978ko Hirigintzako kudeaketaren erreglamenduaren 163.6, 163.7 eta 169 artikulua eta 1093/1997 Errege Dekretua, uztailaren 4koa, Hipoteka Legea betearazteko Erregelamenduaren arau osagarriak, hirigintza-izaerako egintzak Jabetza Erregistroan inskribatzeari buruzkoak, onesten dituenak bere 5. artikuluan xedatutakoari jarraituz hitzarmen-batzarraren eratze eskritura onartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza-Intereseko Elkartearen Erregistroan inskribatu dadila eskatu ahal zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari.

Era berean, aipatu beharra dago hitzarmen-batzarra eratu zenean (2017ko apirilaren 10ean) sinatzeileak azpiesparruko lurren jabetzaren %72,09 ordezkatzeko zutela. Orain berriz, Maria Teresa eta Maria Carmen Erasquin Galarraga, alde batetik, eta Maria Eugenia Muñagorri Azurmendi, bestetik, legeak ezarritako hilabeteko epean hitzarmen batzarrara batu ondoren, hitzarmen-batzarreko kideen jabetzaren %83,33 ordeztzen dute.

Hurrengo urratsa hitzarmen batzarrak birpartzelazio-proiektua onartzea eta udaletxean aurkeztea izango da.

2015eko uztailaren 28ko 1278 zenbakidun Dekretuaren arabera Gobernu Batzarraren eskumena da hirigintza-kudeaketarako tresna desberdinak onartzea.

Aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- “12.4 San Frantzisko Pasealekua, 32,34,36” azpiesparruko gauzatze-unitateko jabetzaren %72,09ak sinatutako hitzarmen batzarraren eraketa eskrituraren kopia eta hitzarmen batzarrari batu zaizkien jabe berrien atxikitze eskrituren kopia onartzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Gipuzkoako Foru Aldundiari ematea Aldundiko Hirigintza-Intereseko Elkartearen Erregistroan hitzarmen batzar honen eraketa inskribatu dezan.

3.- Tak-eri dirulaguntza izenduna.

Tolosaldea Arraun Klubak (TAK), martxoaren 19an, arraun ligako jardunaldi berezi bat antolatu zuen Oria ibaian. Jardunaldi horretan 63 izan ziren, infantil eta kadete mailetan aritutako neska mutil arraunlariak.

Tolosako Udalak, kirol klubaren eta kirol modalitatea goraipatzeko ez ezik herriarentzako jarduera interesegarritzat baloratu ondoren, 3.000 €-ko diru laguntza ematea proposatu du.

Elkarteak, 2017ko irailaren 12an erregistratu ditu Udaletxean memoria eta gainontzeko agiriak.

Ikusirik espedientean agertzen txosten teknikoak eta TAK-ek aurkeztutako dokumentazioa, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 3.000 euroko diru laguntza ematea, 2017ko aurrekontuekin gauzatuko delarik.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea, Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta TAK Arraun Klubari.

4.- Tolosako Elozegi Parkeko egokitzapen proiektuaren laugarren faseko obrak kontratatzeke klausula administratibo partikularren baldintza agiria onartzea.

Ikusita baldintza aministratibo partikularren plegua, proiektu hori prozedura ireki bidez kontratatzeke, eta Hirigintza Batzordeak honi buruz egindako diktamenarekin bat etorritz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Espedientea onartzea Tolosako Elozegi Parkeko egokitzapen proiektuaren laugarren faseko obrak kontratatzeke.

BIGARRENA.- Dagokion gastua baliatzea partidaren kargura.

HIRUGARRENA.- Onartzea Klausula Administratibo Partikularren Plegua, aipameneko obrak kontratatzeke prozedura irekia bidez.

LAUGARRENA.- Adjudikatzeko prozedurari hasiera ematea eta, horretarako, lizitazioaren deia egitea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta kontratatzailearen profilean.

5.- Iurramendiko baratza parkearen lursailak esleitzeko deialdia onartzea.

Tolosako udalak eta Kutzako Ekogune fundazioak elkarlanean Tolosako Baratza Parkea sortu zuten. Iurramendiko baratza parkea 2013. urtean hasi zen martxan.

2013ko maiatzaren 22an, GAOon "Tolosako Baratze Ekologikoak adjudikatzeko eta kudeatzeko araudia" publikatu zen. Araudi orokor honetan, baratzen esleipena 4 urteetarako dela gehienez zehazten da. Baratza Parkeak 4 urte beteko dituen eta datorren udaberriko landaketa garairako esleipenak eginak egon behar dutenez, deialdi berria egin beharra dago.

Aurkezten diren deialdiaren oinarriak goian aipatutako araudi orokorrarekin bat datoz eta gaur egun Baratza Parkearen Elkartea ordezkatzan duten pertsonekin kontrastatua izan da.

Esleipena zozketa bidez egingo da, eta ondokoa zozketatuko da; erabilerarengatik ordaindu beharreko tasa urtero indarrean dagoen ordenantza fiskaletan zehaztutakoa izango da.

Ikusita, onuraduna izateko baldintzak aurreko deialdiko berdinak direla eta zozketa eta esleipenak izapidetzeko eman beharreko pausuak eta aurkeztu beharreko dokumentazioa argi zehazten direla oinarri hauetan.

Gobernu Batzar honek, espedientean agertzen den txosten teknikoarekin bat etorritz, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea Iurramendi parkeko baratzak esleitzeko deialdiaren oinarriak.

BIGARRENA.- Erabakiaren berri Ingurumena, Auzoak, Obrak eta Zerbitzuak Departamentuari ematea.

6.- "Bidebieta Auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"n jasotako obren 5. ziurtagiria (V-17/0698 eta V-17/0699 faktura).

Tolosako Udalak Altuna y Uria, SA, enpresari esleitu zion "Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua"-n jasotako obren kontratua, 847.672,87 € (BEZ barne) izan zelarik esleipenaren zenbatekoa.

Orain arte aurkeztu diren ziurtagiriak honakoak dira, ondorengoak direlarik zenbatekoak:

<i>Ziurtagiri zenbakia</i>	<i>Faktura zenbakia</i>	<i>Zenbatekoa</i>
1. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0371.....	14.251,27 €
1. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0372.....	4.516,93 €
2. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0441.....	33.207,58 €
2. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0440.....	9.975,11 €
3. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0529.....	58.215,24 €
3. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0530.....	8.887,46 €
4. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0587.....	131.440,40 €
4. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0588.....	16.554,62 €
GUZTIRA.....		277.048,61 €

Orain 5. ziurtagiria aurkeztu da, honako da:

5. ziurtagiria (%21ko BEZa).....	V-17/0698.....	90.984,71 €
5. ziurtagiria (BEZik gabe).....	V-17/0699.....	7.509,84 €
GUZTIRA.....		98.494,55 €

Ziurtagiria hau azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU:

LEHENA .- “Bidebieta auzoa eta Bizkaia kalea urbanizatzeko proiektua”-n jasotako obren 5. ziurtagiria onartzea: Zenbatekoa 98.494,55 € -koa.

BIGARRENA.- Sinatutako hitzarmenaren arabera, ziurtagiri honi dagozkion 7.509,84 €-ko ordainketa eskatzea Gipuzkoa Urak enpresari.

HIRUGARRENA.- Fakturen ordainketa egitea.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Altuna y Uria, SA, enpresari, Gipuzkoako Urak enpresari eta Kontuhartzaitzari.

7.- 51-52/2017 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzaitzak **51/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **112,76** €-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **51/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

.....

Kontuhartzaitzak **52/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **259.260,97**€-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **52/2017** faktura-zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA